

DONOSTIAKO AQUARIUM



Donostiako Aquariumak, ICOMek **Museoen Nazioarteko Egunerako** proposaturiko lehari jarraituz, "Itsasoa zainduz" proposatzen du, itsasoa naturaren ondarea dela jakinik bertan dauden bizidun eta landareak kontuan hartuz itsasoa zaintzeko jarduera, alegia.

Horretarako, bi lehiaketa mota burutuko dira. Hezkuntza sailak bisita gidatuak egingo ditu talde ezberdinekin; itsasoa dauden espezie eta landare desberdinak azaldu ondoren, itsasoa zaintzeko moduak ere erakutsiko dizkiete.

Bisita gidatuak burutu eta gero, Aquariumeko gelalara joango dira eta bertan emango dieten materialarekin bi motatako lehiaketatan parte hartzeko aukera izango dute:

. **Bertso lehiaketa:** lehenago monitoreekin ikusitako espezieei eta itsasoa nola zaintzeari buruzko bertso batzuk idatzi beharko dituzte.

. **Marrazki eta Gida lehiaketa:** bisita gidatuan ikusi dutenari buruzko bisita gidatu txiki bat prestatu beharko dute eta aldi bereran marrazki bat egin.

Egunean egingo diren jarduerak 2 ordu eta erdiko iraupena izango dute; bisita gidatua ordu eta erdikoa izango da eta beste ordu bat hartuko dute lehiaketarako idatzi edota marrazteko. Ekintzak eskolako taldeei zuzenduta daude, egun horretan datozen taldeekin hitz egin eta jarduera proposatuko diete.

. Informazio gehiago: atcliente@aquariumss.com / www.aquariumss.com



MUSEUM CEMENTO REZOLA



Museum Cemento Rezolak aurten ere bat egiten du Museoen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu diren ekitaldiekin, eta kultur ekintza antolatu du **maiatzaren 19an**, 11:30etan.

Museum Cemento Rezolak **museora bisita gidatua** antolatu du, non zementuak gure gizartean duen garrantzia ikusi ahal izango dugun. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko industria iraultza aztertuko dugu, zementuaren ekoizpen prozesua, lantegiaren ingurumen politikak, eta era laburrean bai Rezola familiari eta bai Añorga auzoari merezi duten garrantzia eskainiko zaizkie.

Jarraian, **Cementos Rezola lantegiko instalazioak bisitatuko ditugu**, azken bi urteetan egin dugun moduan, zementuaren ekoizpen prozesua lantegian bertan ezagutzeko asmoarekin.

Aurtengo nobedadea Añorga auzoko kolonia industrialia osatzen duten instalazioak bisitatzeko izango da, Euskal Herriko testuinguruan ez ohikoa eta mantendu beharreko ondare unibertsala dena. Museoa bere argazki ondareaz baliatuko da ingurune industrialia osatzen duten lekuak girotzeko: ile - apaindegia, jostundegia, botikina etab. Lantegi ondoko etxean, mediku - arreta, gazteen prestakuntza, elizbarrutiko zerbitzua, ekonomatoa, zentro kulturalak nahiz atseden hartzekoak, kirol barrutiak, plazak eta pasalekuak, higiene zerbitzuak... dira Cementos Rezola lantegiak bere langileei ipintzen zizkien oinarrizko zerbitzuak. Elementu hauek gainera etxe, eskola, parrokia nahiz ekonomatoan, Añorga auzoari kolonia, herri autonomo eta erakunde propio izateko kutsua eman zioten. Ekintza doakoa izango da eta bi ordutako iraupena izango du.

. Informazio gehiago: museumcemento@terra.es / www.museumcemento.rezola.net



CHILLIDA LEKU



Urtero legez, ICOM erakundeak proposatutako gaia museora etorriko diren bisitariei festa bat eskaintzeko erabiliko dugu. "Museoak eta Ondare Unibertsala" gaia azaltzeko, Chillida-Lekun Eduardo Chillidak bere obra eta idatzietan maiz erabili zuen "Ostertza" kontzeptuarekin egingo dugu lan **maiatzaren 20ean**, 11:00etatik 13:00etarA. Bide batez

Haize orraziaren 30. urteurren honetan eskultura donostiar horrengandik gerturatuko gara, bai eta itsasoak bertan eskaintzen duen ostertzarekin ere.

"el horizonte es la Patria de todos"

Eduardo Chillidaren esaldi honek argi islatzen du lotura hori.

Lerroa: ostertz sinbolikoa sortuko dugu bisitarien laguntzarekin. Norberak globo urdin handi bat kokatuko dut aurretik erabakitako lerro batean. Polikinaka museoko sarreratik ikus daiteken ostertza begiztatu ahal izango dugu. Urdina ... ¿Itsasoa Chillida-Lekura etorri ote?

Aurkako espazioak, elkarrekiko espazioak: sortutako espazioek beren nortasuna izango dute soinua/musikaren bitartez, Euskadiko Orkestrako bi taldek horren bozeramale izanik. Musika barroko taldeak gogoraraziko digu Chillidak itsasoa eta Bach-en artean azpimarratutako lotura/antza. Beste eremu zatian haize/metal laukote batek sonoritate ezberdina eskainiko digu, errepertorio garaikideago baten bitartez.

Hitza: Jon Maia bertsolariak emango du egun honetako *haria*. Bisitaria gidatuko du Chillidaren idatziak eta Ondareari buruzko bertsoekin. Bai eta eskultorea eta bere burdina/suaren lanari buruz mintzatu diren hainbat idazleen hitzekin ere.

. Informazio gehiago: chillida@museochillidaleku.com / www.museochillidaleku.com



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MUSEOA

Donostiako Elizbarrutiko Museoak ICOMek proposaturiko leloari jarraituz, **Museoen Nazioarteko Eguna** ospatu nahi du Gipuzkoako erlijio ondarea unibertsal bihurtuz eta ondare unibertsala gipuzkoarrei gerturatuz. Horretarako, hurrengo jarduerak antolatu ditu:

Museoaren irekitzea

Gaur egun Elizbarrutiko Museoak bere ateak irekitzen ditu aldi baterako erakusketetan eta bisita gidatuak egiteko. Elizbarrutiko Museoak bere ateak irekiko ditu **maiatzaren 18, 19 eta 20an**, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Kontzertua

Musika, kultura guztietan aurkitzen dugun ondare unibertsala da. Horregatik, Elizbarrutiko Museoak munduko hainbat lekutako eliz katolikoaren musika biltzen duen kontzertu bat antolatu du **maiatzaren 23rako**, 20:00etan Donostian, San Vicente elizan. Musikalis taldeak eskainiko du kontzertua, honako egitarau honekin:

- 1.- Fuga geográfica (Ernst Tochm. 1887-1964)
- 2.- Aleluja indio (Indian Creek Tradizionala - Arr. Jerry Ulrich-)
- 3.- Oh, Señora (Anonimoa)
- 4.- Reina Celestial (Hernando Franco. 1532-1585)
- 5.- Festejos de Navidad (Herbert Bittrich.1932)
- 6.- Gloria (Tradizional Corea del sur)
- 7.- Aleluia africano (Benjamin Harlan)
- 8.- Arantzazuko Ama (Zapirain)
- 9.- O Magnum Misterium (Javier Busto.1949)
- 10.- Aita gurea (Francisco Madina. 1907-1972)
- 11.-Deep river (Kpk.: H.T. Burleigh)
- 12.- Come hear the news (Theron Kirk)
- 13.- Daniel. Didn't my Lord Deliver Daniel? (Kpk.: James Miller)
- 14.- Acclamation. Hallelujah praise the Lord. (Robert Ray)
- 15.- Propeccatis (Stabat mater) (Luigi Boccherini.1743-1805)
- 16.- Ave Maria (Sergey Rachmaninoff. 1873-1943)
- 17.- Agnus Dei (Gioachino Rossini. 1792-1868)

Musikalisen zuzendaria: Javier Santacana; **Piano-jolea:** Borja Rubiños;
Zuzendaria: Iñaki Cárcamo.

. Informazio gehiago: www.demdonostia.com / 943 472 362



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA



Museoen Nazioarteko Egunerako lehari jarraituz, eta jarduerak Zientziaren Kutxagunean –dibulgazio zientifikoa sustatzen duen zientzia-museoa– egingo direla kontuan hartuz, ondoren jarduera hauek antolatu ditu:

. Hotzak irakin, nitrogenoari esker, 13:00ean.

Nitrogeno likidoa erabiliko dugu ekitaldi honetan. Harrigarria iruditu arren, hotzaren bidez ere irakin daitezke likidoak.

Egoera likidoan, $-196\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an egon ohi da nitrogenoa. Normalean, ordea, egoera gaseosoan egon ohi da. Lurruntzeko, energia hartu behar du. Horretarako, eguneroko bizimoduko objektuak erabiliko ditugu.

Adin guztietako jendearentzat da ariketa hau, eta 50 minutu irauten du.

. Asmatu eta marraztu, 17:00etan.

Jarduera honetan, objektuen ereduak egiteko material berri bat erakutsiko diegu haurrei. Janarientzako koloratzailea duten almidoi-piezak dira. Ez dira batere kaltegarriak, baina ez dira jangarriak.

Tip-ekin, gure sormena landuko dugu, eta bi edo hiru dimentsioko marrazkiak egingo ditugu. Eredu batzuk ere banatuko ditugu, txikienei laguntzeko.

. Zer da almidoia? Zertarako erabiltzen da?

Landareek beren elikadura gordetzeko erabiltzen duten substantzia da almidoia. Sustraietan (juka), tuberkuluetan (patata), frutetan eta hazietan (zekaleak) egoten da almidoia. Landareentzat erreserba-gai garrantzitsua izateaz gain, gizakientzat ere energia-iturri baliotsua da; izan ere, elikagaien bidez jasotzen dugun energiaren zati handi bat ematen digu.

Almidoia garrantzitsua da, gure dietaren parte baita. Dieta osasuntsu batean, kontsumitzen dugun energiaren zati handi bat almidoitik eta hori hidrolizatzean askatzen diren glukosa-unitateetatik jasotzen dugu.



Janari-industrian ere asko erabiltzen da almidoia, zenbait jakiren gehigarri gisa. Erabiltzen diren gehigarri ugarietatik bat da. Hainbat erabilera ditu almidoiak. Hona hemen aipagarrienak: itsasteko, lotzeko, uhertzeko, geruzak eratzeko, bitsa egonkortzeko, ogia kontserbatzeko, gela eratzeko, aglutinatzeko eta abar erabiltzen da. Arazoak agertzen dira, maiz, horren erabilerari buruzko informaziorik izaten ez dugunean. Esaterako, kalitate gutxiko hestebeteei eta sakoteei gehitzen zaie, trinkotasuna emateko.

Lau urtetik bederatzira bitarteko neska-mutikoentzat da ariketa hau. Iraupena, 50 minutu.

. Uraren jokia, 18:00etan.

Uraren jokia ariketa honetan datza: Museoko erakusketa iraunkorrean informazioa bilatu behar dute neska-mutikoek, giro ludikoan betiere. Lankidetzajokia da, taldeka egin beharrekoa: denek erantzun behar dituzte galderak, denek egin behar dituzte probak (urari buruzkoak, guztiak).

Jokoaren saio bakoitzean, bi adin-multzotako neska-mutilek hartzen dute parte: 6-8 urte bitartekoek, batean; 8-10 urte bitartekoek, bestean. Ordubate iraungo du ariketak.

. Informazio gehiago: kutxaespacio@kutxa.es / www.miramon.org

Argazkia: www.euskonews.com.



SAN TELMO MUSEOA



2007ko Museoen Eguna ospatzeko jarduerak San Telmo Museoak **maiatzaren 24an** ospatuko ditu, osteguna, hiriko beste museoekin koordinatutako eskaintza osatzeko. San Telmok bizi duen egoera berezia dela eta, berrikuntza proiektuaren lanak jadanik abian, jardueren parte bat kalera atera du, beste museoekin batera data garrantzitsu hau ospatzeko:

Honako jarduerak antolatu ditu San Telmok aurten:

- **Kalejira ibilbidearen bertsiio berezia:** museoaren eskaintza didaktikoaren barne dagoen Kalejira programak Alde Zaharrean zehar ibilbidea proposatzen du bere eraikin esanguratsuenen azalpena eginaz, ingurunea hobeto ezagutzeko helburuarekin. Museoen Eguna ospatzeko prestatutako eskaintzaren berezitasuna protagonisten paperak aldatzean datza, hau da, ikasleak gidari gisa arituko dira helduei azalpenak ematen. Ondarea ezagutzeko balioko dien jarduera izango da, edukiak barneratzeko baliagarria izango baita ikasleentzako eta esperientzia aberasgarria helduentzako. Bisita hauek hilaren 23an egingo dira (irakaskuntzan 24rako dagoen greba deialdia dela eta), nahiz eta San Telmoren gainontzeko eskaintza 24an burutuko den.

- **Gero Arte erakusketara bisita gidatuak:** arratsaldez, euskaraz eta gazteleraz museoaren berrikuntza proiektua aurkezten duen Gero Arte erakusketara 45 minutuko bisitak eskainiko dira. Euskaraz 17:30ean eta gazteleraz 18:30ean. Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea.

- Museoen Lagunen Elkartek antolatuta, **kontzertua egingo da San Telmoko elizan**, 20:00ean, "Érika's Dream Trio" jazz taldearen eskutik. Kontzertua hasi aurretik Elkartek aurten Museoen Nazioarteko Eguna dela eta San Telmori egingo dion dohaintzaren aurkezpena egingo dute. Sarrera librea izango da aforoa bete arte.

. Informazio gehiago: www.museosantelmo.com



UNTZI MUSEOA



Nahiz eta Untzi Museoa publikoari itxita egon, bere areto ezberdinak berritzen eta ekainaren 12an inauguratuko den "Donostia Itsas Hiria" erakusketa prestatzen ari delako, ez du egun hau ospatzeko aukera galdu nahi eta inizatiba honekin bat egiten du honoko ekitaldiak proposatuz **maiatzaren 22rako** (asteartea):

. "Donostia itsas hiria" katel lehiaketako sari banaketa, 12:00etan:

Goizez, "Donostia Itsas Hiria" katel lehiaketako sari banaketa ospatuko da zeinetan eskola ezberdinetako hurrek parte hartu duten. Museoko Hezkuntza Departamentuak izendatutako epaimahai batek irabazlearen izena emango du jakitera egun honetan. Sari banaketaren ondoren, hamaiketako txiki bat egingo dute lehiaketan parte hartu dutenekin eta bakoitzari oroimenezko opari txiki bat emango zaio.

. Ibilbide historiko-literarioa, Nagusilan abesbatzarekin, 17:30etan:

Arratsaldean, Ibilbide historiko-literarioa antolatu dugu Portuan zehar, non "Nagusilan" Abesbatzako kideak izango ditugun laguntzaile. Abesbatza hau 22 gizon eta emakumez osatuta dago eta 55 urtetik gorako bolondresak dira guztiak. 2004. urtean sortu zen abesbatza eta helburua Egoitza eta Helduen Eguneko Zentroetan kantuen bidez giroa alaitu eta han dauden pertsonen bizitza entretenitzea da. Abesbatzaren zuzendaria Vineta Iglesias da.

Ibilbide historiko-literario hau 17:30etan Portaletasen hasiko dugu. Geroago Arrantzaleen Ionjara, San Pedro Elizara eta Mariren omenezko monumentura joango gara eta ondoren antzinako Donostiako Itsas Kontsulatuarena izan zen Untzi Museoaren eraikinean bukatuko dugu. Aipatutako lekuetan informazio historikoa emango da eta itsasoko gaiak dituzten abestiak interpretatuko dira. Hiriaz pixka bat gehiago ikasi eta itsasoak inspiratu dituen doinuez disfrutatu nahi duen ororentzat dago irekia inizatiba hau.

. Informazio gehiago: mnaval@gipuzkoa.net / <http://um.gipuzkoakultura.net/>

